

GURE ALTXORRA

Herria ezagutzen



GURE ALTXORRA

Herria ezagutzen

Argitaratzailea: Arrasateko Udala. Hezkuntza Saila.

Egilea: Arrasateko Udala. Hezkuntza Saila.

“Hik Hasi” aldizkariarekin elkarlanean.

Ilustrazioak: Aitziber Alonso

Diseinua:  zure balioen marka

Argazkiak: Arrasateko Udal Artxiboa (Paisajes españoles-debekatuta horien erreprodukzioa-), AUaren Indalecio Ojanguren argazkiak, “Uribarri, auzo baten historia” liburutik, Santamas komisiñue, Mondra FC, Mondraberri, Nafarroako herriko kirolen federakuntza eta Arrasateko Udalaren Hezkuntza Saila.


Inprimatzailea: Gertu

LG: SS-1026/2010




ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN


hh
hik hasi


 Ezabatu, zure ustez, herriari ez dagozkion adjektiboak.


Euritsua, lehorra, berdea, eguzkitsua, hezea, jendetsua, kutsatua, zaratatsua, iluna, zatarra, garbia, aberatsa, industrialala, atsegina, basotsua, kirolzalea, menditsua, txiroa, koloretsua, modernoa, bizia, zaharra.

 Adjektiboak baliagarriak zaizkigu, batik bat, gauzak deskribatzeko.

Osatu herriari buruzko azalpen-testua, aukeratu dituzun ahalik eta adjektibo gehienak erabiliz.

 Idatzi ezagutzen dituzun herriko mendien izenak.

 Orain, idatzi errekenak eta ibaienak:

 Zein auzotan daude parke hauek?






Aramaio eta Deba ibaiek herria zeharkatzen dute. Baina beti ez dituzte egin gaurko egunean egiten dituzten ibilbideak.

Behatu argazkia. Zein elementu zeuden lehen ibai bazterrean?

Eta gaur egun, zein elementu daude ibai ertzetan?

Lehenengo errepideen eta gero trenbidearen bideek ubidea estutu zuten. Auzoak eta industrialdeak egiteko bideak desbideratu zituzten. Gainera, lantegiek dena isurtzen zuten ibaietara eta urte askoan ez zuten garbitu ibaiaren ingurua. Beraz, urak jaisten zituen lohi, arre, harri eta zikinkeriak ubidearen hondora eta bazterretara joan ziren.

Zure ustez, nolako ondorioak izan ditu horrek guztiak?





Esatera zaharrak dio: **“Egiak eta urak beti beren bidea egiten”**. Zer esan nahi ote du horrek?


Uholde eta euri-jasak jasan ditu herriak bere historian. Deba eta Aramaio ibaiak sartu zituzten ubide estuetatik atera eta herriko kaleetan zehar bilatzen zituzten beren bideak. Era berean, mendi-maldetatik zetozen errekatxoak beren bidetik irten eta kalte material ugari sortzen zituzten.


Azken urteotako uholderik handiena 1942ko abuztuaren 28an izan zen. Uranga historialariak jaso duenaren arabera urak Portaloia-aren arkuraino iritsi baitziren. Lantegiak eta herriko eguneroko jarduerak gelditu izan genituen hainbat hilabetez eta ume bat hil zen.



Altura horretaraino urak iritsi baziren, zer gertatuko zen herriguneko etxe, etxabe eta kaleekin?

Kasu horietan, triskantzak konpontzeko zer egin beharko genuke zure ustez?





Udalerrria bi bailarez osatuta dago. Ugaran bailaratik ibaia igarotzen da eta Leintz bailaratik ibaia.

Mapari begiratu gero, gure udalerriko ibaiek ibai berean isurtzen ote dute?
Bi ibaiek nonbaiten elkartzen dira? Hala izanez gero, zein izen hartzen du ibaia?

Deba ibaia Deba herrian itsasoratzen da, zein itsasotan?

Zer esan nahi du "Erreketako urak ibaira isurtzen dira" esaldiak?

Ezagutzen al duzu udalerriko erreka bat?

Aramaio ibaian ibairatzen dena:

Deba ibaian ibairatzen dena:

Ikusten al ditugu Aramaio eta Deba ibaietara isurtzen diren erreka? Zergatik? Non daude?

Orain badakigu ibaiak non amaitzen diren. Baina non hasten dira?

Ibaiek erreka urak jasotzen dituzte. **Errekako** urek errekatxo urak jasotzen dituzte, **Errekatxoak** mendien iturburuetan sortu eta mendi tarteetan euri-ura pilatzen denean sortzen dira.



Arrasateko toponimia mapari begiratu, adierazi **Udalatxeko lurpeko uretatik** jaiotzen diren errekatxo eta erreka batzuen izenak eta zein ibaitara doazen.

ARAZTEGIA

Lehen, lantegiek euren hondakinak ibaietara isurtzeaz gain, etxeetako ur zikinak ere ibai edo erreketara joaten ziren.

Ibaia garbi mantentzeko Deba, Aramaio eta Oñati ibaien ertzeetan tutuak lurperatu dituzte, Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate eta Oñatiko ur zikinak jasotzeko eta, araztegia tratatu ondoren, urak berriro garbi ibaira itzultzeko.

Badakizu araztegia zein auzotan dagoen?



Azken urteotan herriko ibaietan gero eta ahate gehiago ikusten ditugu uretan, baina ba al dago arrainik? Zer uste duzu? Zein motatakoa?

ETXEKO URA

Lehen etxeetan edaten genuen ura hainbat **errekatatik** harturiko ura zen, baina gaur egun ba al dakizu nondik datorren etxean edaten dugu ura?

Osatu eskema eta edateko urak urtegitik gure etxeetako txorrotera iristeko egiten duen bidea jakingo duzu, koadroak ere zenbakiekin jarritz. Horretarako honako elementu hauek konbinatu: **etxe txorrota, araztegia, euria, edalontzia, urtegia, erreka, hodiak herrietaraino.**

Hortaz, mendi aldera jo beharko dugu errekatxoak eta errekek non jaiotzen diren ikusteko.



Argazkia ikusirik, zer esango zenuke? Aukeratu:

- Eremu menditsuan bizi garela.
- Eremu lauan bizi garela.
- Gure inguruko mendiak altuak direla.
- Mendixkez inguraturik gaudela.

Ezagutzen al ditugu gure mendiak?

Elkartu taldeka eta saiatu gure herriko mendien izenak eta altuerak mapetan biltzen (3. unitatearekin batera banatutako toponimia mapan), Interneten begiratuta edo jendeari galdetuta. Laguntza gisa, sarean hainbat webgune dituzue:

GIPUZKOAKO MENDI FEDERAKUNTZA:
www.gmf-fgm.org

MENDIKAT:
www.mendikat.net
www.gipuzkoamendizmendi.net

ARRASATEKO UDALA:
www. arrasate.eus

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA:
www.b5m.gipuzkoa.net/web5000/kaletegia/mendiak.
 (Ortofotoak)

EUSKAL HERRIKO MENDIAK:
www.euskal-herria.org/mendi

MENDIEN IZENAK

Bai ederra lagunekin aritzea! Orain, zuk zeuk bete taula.

EZAGUTZEN DITUDAN MENDIAK	EGON NAIZEN MENDIAK

- Gu ez gara udalerriko bizidun bakarrak! Gure kaleetan, mendietan, ibaietan, erreketan, basoetan eta hainbat txokotan beste animalia eta landare asko bizi dira.

Bizi garen ingurunean denok dugu elkarren beharra bizirauteko. Horregatik, haiek zaintzea eta babestea da gure egitekoa, era berean gure burua zaintzen eta babesten ari baikara.

- Zein animalia irudikatzen duzu bizi direla udalerrian?

ANIMALIAREN IZENA	BAI	EZ

- Entzun arretaz (gidaren testua) eta zure iritzia egia den edo ez markatu.

- Udalerrian bizi ez direla pentsatu izan dituzun animaliak.

- Margotu imajinatu dituzun basoko eta etxekeko animalia bana.

Landaredia aberatsa al dugu herrian? **BAI** **EZ**

Azter dezagun... Horretarako Arrasateko webgunearen barruan sartuko gara www.arrasate.eus/parkeak Ortofotoen bidez zuhaitz bakoitzaren informazioa eta kokapena eskura duzue.

Zenbat zuhaitz mota ezagutzen duzu?

Hemen behean dituzun hostoak zein zuhaitzenak dira? Bost zuhaitzen hostoak dira. Ea ezagutzen dituzun urki, pinu, haritz, pago eta astigar zuhaitzen hostoak.



Eta zein landare ezagutzen duzu?

Badakizu belar gehiagoren izenik?

Sendabelar gehiago ezagutu ditugu. Baita haien zelan erabili ere. Zuen etxean erabiltzen duzue sendabelarrik? Zelan? Galdetu etxekoei.

Herrian badaude hainbat gune zuhaitz multzo handiekin. Ea asmatzen dituzun zer zuhaitz diren eta non dauden.



ABARITZA

Udalatzeko maldan, Larragainen, Gipuzkoan dagoen zuhaitz mota bakarra dago. Abaritza du izena. Mediterraneoeko kliman hazten den zuhaixka da eta inguru honetan izatea altxor naturala da.

Zure ustez, Arrasateko duen klima alderatu dezakegu klima mediterraneoarekin? **Alderatu lau osagaiok (tenperatura, euri kantitatea, haizea, eguzki-orduak).**

- Azken urteotan parkeak eraiki dira gure herrian. Batzuk aspaldidanik daude eta beste batzuk berriak dira. Gehienak porlanaren gainean eraikiak, baina beste batzuk zuhaitz eta berdegune ugariarekin. Honako hauek dira herrian ditugun parkeak:



SANTA BARBARA (GOIKOBALU)	ERDIALDEAN
MONTERRON	ERDIALDEAN
ARRUENA	MUSAKOLAN
ZALDIBAR	ERDIALDEAN
BITERI PLAZA	ERDIALDEAN
ALDAI	ALDAI/SANTA MARINAN
MUNAR	URIBARRI (MUNARREN)
SAILUENTE	MUSAKOLAN
DOKTOR KORDOBA Y ORO	SAN ANDRESEN
GELMA	ZABALGUNEAN (GELMA)
ZERRAJERA eta SKATE gunea	ZALDIBARREN
OLANDIO	SAN ANDRESEN
GARAIA berrikuntza gunea	URIBARRIN
OINEZKOENTZAKO IBILBIDEA	AUZO ASKO ZEHARKATZEN DITU

- Nahikoa parke ote dugu herrian... Eztabaidatu taldean.

Parke guztiak ez dira berdinak: landaredia desberdina dute, espazioak eta elementuak ez dira parke guztietan berberak.

Denak herrigunean daude, baina kokapen desberdina dute eta baita erabilera ere.

- Taldeka bildu eta aukeratu parke bat: gustukoena, zuen auzokoa, ikastetxetik hurbil dagoena eta nahi duzuen.

Behatu eta, gero, ordenatu hartu dituzuen oharrak eta, lagunei aurkezteko, osatu deskribapen-testua. Ez ahaztu argazkia ere jartzea.

- Orain arte herrigunean dauden parkeak aztertu ditugu, baina Arrasatek hurbil, parke natural bat eta hezegune garrantzitsu bat ere baditugu.

AITZGORRI ARATZ PARKE NATURALA

Aitzgorri eta Elgea-Urkilla mendilerroetako mendiak, basoak eta pentzeak daude parke honetan eta 14.626 hektarea ditu.

Arabako Asparrena, Zalduondo, San Millan eta Barrundiako udalerrien lurrek eta Gipuzkoako Leintz-Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta, Oñati, Legazpi, Zerain, Zegamako udalerriek eta Partzuergoko lurrek (Urbia) osatzen dute parkea.

*Ezabatu parke honetan ez dauden elementuak:

Errekatxoak, Aitzgorri mendia, Udaltx mendia, haitzuloak, bidegorriak, lorategiak, zaldiak, saiak, haize errotak.

URKULU URTEGIAREN HEZEGUNEA

Ba al zenekien:

- 1984. urteaz geroztik etxeko ura Urkuluko urtegitik datorrela?
- Hegazti migratzaileentzako atseden gunea dela haien bidaia luzean?
- Animalia asko bizi direla bere inguruan? Katajineta, azkonarra, orkatza, basurdea, saia, sugegorria, igela, apoa, uhandrea, hontza, amilotxa, mozoloa, uroiloa, lertxuntxo, mirua, katagorria, amuarraina...
- 2011. urtean, urtegiaren inguruan auzo, zuhaitz eta landareei buruzko ibilbide autogidatu didaktikoa egin dutela? Hegazti migratzaileentzako atseden gunea dela haien bidaia luzean?



ORTU EKOLOGIKOAK

Tokiko Agenda 21 garatzearen ondorioz, Garagartza auzoan ortu ekologikoak jarri ditu Udalak. 87 ortu dira eta debekatuta dago herbizidak, pestizidak eta ongari sintesikoak erabiltzea.

- Ortuan lan egiteko zein tresna da beharrezkoa? Aipatu banaka batzuk.

ARBIGARA: ARRASATEARREN JANARI ALTXORRA


Ezagutzen al duzu?

ZER DA? Arbiaren zurtoin gaztea da, oraindik kukulua denean. Hazten utziz gero, loreak ematen ditu zurtoin horrek.

ZELAN PRESTATZEN DA? Arbigarek zapore mingotsa dute eta txiki-txiki egin eta egosita jaten dira: hori bai, lehenik eta behin, batzuen arabera, ura birritan aldatuta. Hirugihar zati batzuk ere bota ditzakegu.



- ZABORRAK.** Gizakiok beti sortu izan dugu zaborra. Industrializazioarekin herrira jende gehiago etorri zen bizitzen eta gero eta zabor gehiago sortzen genuen. Udal ordenantzek debekatzen zuten arren, jendeak etxeetako zaborrak errekarra botatzen zituen.
- Badakizu, gaurko egunean, zer bide egiten duen zaborrak? Marrazkiz adierazi.



ZABORRAK ETA BIRZIKLATZEA

Orain artean zaborra birziklatzeko herrietan edukiontzia (papera, beira, zaborra, plastikoa, olio) erabiltzen ari gara. Arazoa konpontzen ez denez, ekimen berriak jartzen ari dira abian herrietan: bosgarren edukiontzian zabor organikoa (landareen eta animalien jatorrizko hondarrak) eta atez ateko hondakinen bilketa-sistema zerbitzua.


Gidako testua entzundakoan, taldeka, aztertu metodo bakoitzaren alde onak eta alde txarrak.

	ALDE ONAK	ALDE TXARRAK
ZABOR ORGANIKOA		
ATEZ ATEKOA		

- Ziur asko, honezkero UDALAKO INGURUMEN ESKOLAn izan zara zure eskolakideekin, eta zaborrari buruzko informazio pila duzu, baina mendian, birziklatzen al da botatako zaborra? Eta Everesten inork botatzen badu, nork jasotzen du?



3 UDALA
Udalatxeko artadia



2 MEATZERREKA
Harrobia



1 ERDIGUNEA
Goikobalu parkea




4 GESALIBAR
azpiegituren inpaktua



5 GARAGARTZA
Ortu ekologikoak



6 URIBARRI
Natura, industria



7 BEDOÑABE / SAN ANDRES
Hirigintzaren eta errepideen eragina





1 ERDIGUNEA
Monterron parkea



11 MAKATZENA
Mendi magaletan
etxeak eraikitzea



10 MUSAKOLA
Araztegia
Etkezaretako basoa



9 ZALDIBAR
Bi ibaien elkargunea



8 BEDOÑA
Baserriak, zelaiak

- 1918. urtean "Vasco Navarro" izeneko trenaren iritsi zen Arrasatera eta zerbitzua eman zuen 1967ko abenduaren 31ra arte. Linea Lizarratik Bergarara zihoan eta trenaren lokomotorak Gipuzkoa, Mondragón, Vitoria eta Laurak Bat izenez bataiatu zituzten. Gaur egun INEMeko egoitzan zuen geltokia.



Hasiera batean lurrunaren bidez eta gero elektrizitatearen bidez mugitzen zen tren.

- AHT. Azken urteotan Abiadura Handiko Trena egiten dihardute Euskal Herrian eta Arrasaten. Aurreikusita dago geltokiak Iruñean, Bilbon, Donostian, Gasteizen eta Gipuzkoako Ezkio herrian egitea. Tren horrek 200-250 kilometro orduko abiadura har dezake trenbide prestatuetan. Gure inguru menditsuan trenbidea egiteko obra eta lur ebakialdi handiak egin behar dira.



- Aukeratu esaldi bakoitza zein treni dagokion.

	"VASCO NAVARRO" TRENA	AHTaren PROIEKTUA
Deba erreka gainetik igarotzen zen / igaroko da		
Herrian geltoki bat zuen / izango du		
Jendea garraiatzeko zen / izango da		
Gesalibar eta Garagartza auzoetako lurretatik pasatzen zen / pasatuko da		
Lizarratik Bergarara zihoan / joango da eta Gasteiztik pasatzen zen / pasako da		
Trenbidearen ibilbidean bidegorria egin da / egingo da		
Udalatx mendiaren azpitik pasatzen zen / pasatuko da		



1830-1840. urteetan martxan jarri ziren animaliek tiraturiko lehenengo diligentziak, bidaiariak garraiatzeko.

XX. mendearen hasieran hasi ziren ordezkatzeko animaliak baporezko makinez, eta hiriburuetan batez ere, baporezko autobusek garraiatzen zituzten bidaiariak.

“Vasco navarro” trenea desagertu eta gero, bailaran erregaiez mugitzen ziren autobusekin bidaiariak garraiatzen hasi ziren.

Garai hartan trafiko txikia zebilen herrian. Autobusak eta kotxeak herriaren erditik pasatzen ziren eta ez zegoen semafororik. Sahiesbiderik eta autopistarik ere ez.



HERRIKO AUTOBUSA

2000. urtean martxan jarri zen herriko autobusa.

- Zure ustez zergatik sortu zen zerbitzu hor?

- Zer onura du?

- Iristen al da auzo guztietara? Iristen al da zure auzora?





PILOTA. Betidanik zaletasun handia izan da herrian eta pilotari ospetsuak izan ditugu.

1900. urtean Zaldibarko frontoia egin zuten. Garai hartan pilotan gizonak aritzen baziren ere, erraketa espezialitatean Justi Arenaza "Vasquita" puntako pilotaria izan zen.

- Gaur egun, pilotaleku ugari dugu herrian. Aztertu auzoka eta azaldu non dauden.



JUVENTUD DEPORTIVA MONDRAGON elkarte 1944. urtean sortu zen, futbola, atletismoa, pilota, mendizaletasuna eta txirrindularitza jarduerak sustatzeko eta desegin arte erreferentia izan zen garai hartako Arrasateko jendartearen. Elkarte honetatik sortu ziren gaur ezagutzen ditugun hainbat kirol-elkarte.



MENDIZALETASUNA. Mendizaletasun handia dago herrian. Besaide Mendi Elkartek mendiarekin lotura duten hainbat jarduera antolatzen ditu.

1955. urteaz geroztik, irailaren 3. asteko igandean, EHko Federakuntzak Euskal Herrian mendian hildako mendizaleen oroimen-eguna antolatzen du Besaiden.



- Mendi jarduerak ugari dira (senderismoa edo mendi ibilia, eskalada, skia, ...). Zeintzuk dituzu gogokoen?

FUTBOLA. 1913. urtean sortu zen Arrasaten lehenbiziko futbol ekipoa "Club Deportivo Mondragon" izenarekin eta lehenbiziko zelaia Etxaluzen (San Andres auzoan) izan zuen.

Izen bat baino gehiago izan ditu eta hainbat futbol zelaitan aritu izan da historian (Etxaluzen, Maalan, Iturripe zaharrean, Iturripe berrian, Atxabalpen eta Mojategin).

Herriak beste ekipoa batzuk ere izan ditu, UCEA, Makatzena eta Pedrusco, baina gaur desagertuta daude.



- Futbolari ezagunak izan ditugu herrian. Ea zenbaten izenak gogoratu eta biltzen dituzuen.

EMAKUMEAK FUTBOLARI



Mondragon futbol taldeak 1986. urtean sortu zuen lehenbiziko emakumezkoen ekipoa. 2011an Gipuzkoako ligako txapelketa izan zen.

1993. urtetik 2000. urtera arte AEDk herrian antolatu zuen nesken arteko futbito txapelketa.

Azken hamarkadan Arizmendik ere emakumezkoen ekipoa sortu ditu, eta honezko kategoria guztietan ditu ekipoa.

ZALDIBARKO ARETO FUTBOLEKO TXAPELKETA

1956. urtean sortu zen txapelketa hau. "Zelaia" Zaldibarko frontoia da. Zenbat mutil pasatu ote den txapelketa honetatik! Lehen Arrasateko ekipoen harrobia zen.

2012an 50. urteurrena ospatu zuen txapelketa honek.

*Emakumeak
ere
Zaldibarren
jokalari!*

ERRUGBIA. Arrasaten lehen taldea 1972. urtean sortu zen.

Madrilgo errugbi ekipo batean arituriko Arrasateko errugbi jokalaria ohi batek, Jesus Jauregik eta Atletismo sailak bultzatuta sortu zuten ekipoa. Hasiera batean, Juventud Deportiva Mondragon elkartearen barruan eta gero bakarrik, klub bezala.

Hiru zelaitan jardun izan du, Iturripen, Garagartzan eta Mojategin.

2000. urtean emakumezkoen ekipoa sortu zuen.

- Ba al dakizu non dagoen errugbi zelaia?



TXIRRINDULARITZA

Eguneroko bizimoduan erabiltzen zen tresna, bizikleta, kirola eta lehiaketa egiteko tresna bihurtu zen. Txirrindulari lasterketa baten lehen erreferentzia ofiziala 1912. urtekoa da Arrasaten.

1944. urteaz geroztik 'Juventud Deportiva de Mondragon' elkartearen barruan sustatu zen. Geroago "Club Ciclista Mondragonés" izena hartu zuen eta erakunde bihurtu, desegin arte.

Gaurko egunean, Arrasaten Zikloturisten klub bat dago, kirol horrek ematen dituen sentrazio eta onurez gozatzeko.

BIDEGORRIAK

- Zer dira eta zertarako erabiltzen dira bidegorriak?

- Badakizu non dauden Arrasaten bidegorriak? Bidegorritik posible al da bizikletaz joatea Arrasateetik Urkuluraino?



ATLETISMOA

Atletismo saila 'Juventuk Deportiva Mondragon' elkartearen barruan sortu zen eta bere jarduera 1963. urtean hasi zuen klub bezala lantzen, Iturripeko pista berriak egin zituztenean.

Hasieratik aitzindaria izan da emakumezkoen presentzia kirol honetan. Rosa Otxandiano 1965-1970 denbora tartean, kros, 400 m, 800 m eta 1.500 metroko probetan Euskal Herriko atletarik onenetarikoa izan zen.

Egun, bailarako eta Arrasateko gazte ugari Mojatetik kirol instalazioen pista berrietan entrenatzen dute.

Ekipoan dauden hainbat atleta, neskak eta mutilak, etorkizun handiko atletak dira.



- Ba al dakizu noiz antolatzen den hainbat kategoria hartzen duen atletismo proba bat erdialdean?

.....

- Parte hartu duzu inoiz kros txapelketa horretan?

.....

SASKIBALOIA

Jarraitzaile eta jokalar asko dituen kirola da saskibaloia.

Jon Basurko ingeniari bilbotarrak eta lehenbiziko ekipoa sortu zuen 1968. urtean.

Espainiako 2. mailara igotzea lortu zuen eta erdi profesionalizatu egin zen.




Jokalar amerikarra izan zuen, Baskoniaren ekipoko filiala izan zen eta ACBra igotzeko play off-etan parte hartu zuen ekipoa.

Emakumezkoen ekipoa 1990. urtean sortu zen eta gaur egun, hitzarmen bat tarteko, Eskoriatzako ekipoa jokatzen dute.



BESTE KIROL BATZUK

Herrian beste kirol batzuk egiten dituzten taldeak ditugu. Guk argazkiak ipini ditugu. Lagundu bilduma osatzen eta ipini kirolen izenak.




HERRI-KIROLAK

Tradizio gutxi izan dute herrian. Santamasetan eta auzoko jaietan ikusten ditugu, baina azkeneko urteotan eskoletan lantzen ari dira eta txapelketak egiten dihardute.

Euskaldunen kirolak dira eta sokatira izan ezik, nazioartean nahiko ezezagunak dira. Ea badakizun zeintzuk diren.

Ipini kirol bakoitzari bere izena: Harri jasotzea, Orga jokoa, Txinga erutea, sokatira eta aizkolaritza.



- Azaldu zeintzuk diren eskolarekin, Laubide plazan edo Uarkapen XIBAkoekin jokatzen dituzuen herri-kirolak, banan banakoak eta taldekakoak. Zein da gehien gustatzen zaizuna?

ESKOLA KIROLA

1990-91 ikasturtean abian jarri zen eskola kiroleko proiektua, batetik, Arrasateko eta Aramaioko 6-14 urte bitarteko neska-mutilentzat, eta bestetik, Aretxabaleta-Eskoriatzakoentzat. 2004-2005eko ikasturteaz geroztik bi proiektu batutakoan. Leintz-Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate eta Aramaioko ikastetxeek udalekin elkarlanean garatzen dute proiektua. Kirolaren bidez, ikasleei kirol eskaintza egokia eskaintzeko.

- Azaldu zein kirol landu duzun orain arte eskola kirolean eta aurten zein kirol egiten ari zaren.

- Proiektuan egiten dituzun kirolez gain, beste kirolik egiten al duzu zuk?

- Aipatu ezagutzen dituzun herriko kirol instalazioak.


- Aipatu ditugun kirolez gain, badakizu herrian beste kirolik egiten den?



INKESTA GELAN

- Zein kirol egiten duzue eta zenbatek egiten duzue?

Horietatik zenbat dira neskak eta zenbat mutilak? Datuez osatu piramidea.



KIROLA	MARRA KOLOREA
Saskibaloia	

- Herriko zein kirolari ezagutzen duzu?

KIROLARIA	KIROLA

Gauza asko gertatzen dira gure inguruan; albisteak edo berriak dira.

- Nola jasotzen ditugu berriak, zein bidetatik?



- Herrian hedabide ugari ditugu:

IRRATIA	"ARRASATE IRRATIA". Euskaraz. Herriari buruzko informazioak, albistegiak.
	"ITXUNGI IRRATIA". AGAKOk sorturiko proiektua. Euskaraz.
ALDIZKARIAK	"BIZIRIK". Euskaraz eta gaztelaniaz. Hiruhilabetekaria. Arrasateko udalak eta Ibai-arte dendarien elkarteak argitaratuta.
	"ATEA". Euskaraz. Hiruhilabetekaria. AEDek bazkideei bidaltzen dien aldizkaria.
TELEBISTA	"GOIENA TELEBISTA". Euskaraz. Debagoieneko informazioa eta gertakariak jasotzen ditu.
INTERNET	www.arrasate.eus . Udal webgunea: albisteak, agenda, udal eta herriko informazioa.
	www.debagoiena.eus . Debagoieneko mankomunitatea. Eskualdeko webgunea. Albisteak, agenda eta udal zein eskualdeko informazioa.
	www.mondraberri.com . Euskaraz. Egunkari digitala. Herriko albisteak, elkarrizketak eta erreportajeak.
	www.goiena.eus Debagoieneko ataria. Eskualdeko berriak, erreportajeak...
ASTEKARIA	"GOIENA". Euskaraz. Debagoieneko eta Arrasateko informazioa, gertakariak jasotzen ditu.
	"PUNTUA" aldizkaria.
BESTE BATZUK	<ul style="list-style-type: none"> • KULTUR AGENDA. Hilero. Goienagida. Leintz Bailara eta Aramaioko komertzioen telefonoak. • Hainbat euskarri informatzaile. (Emakume txokoa, Aukea) hiruhilero ateratzen dira.



Sartu Arrasateko egunkari digital batean eta hautatu gaurkotasuna duen herriko berriren bat. Behean duzun koadroetan antolatu eta idatzi berria. Gero, bildu taldeka, talde bakoitzak hartu dezala arlo bateko (politika, kirolak, ekonomia, kultura) berria eta prestatu berria. Gainerako taldeekin partekatu eta horrela osatuko duzu zure gelako egunkari digitala.

Sortu berria **nork, zer, noiz, nola eta zergatik galdera** gaiei erantzunez.

TITULARRA

AZPITITULARRA

EGILEAREN IZENA

BERRIA

.....

.....

.....

.....

.....



argazki-oina



Gure inguruko jendeak zer hedabide erabiltzen ote du berriak jakiteko? Hasi galdezka, eta osatu inkesta-aula.

Inkestako galderak:

- Zein hedabide erabiltzen duzu berriak jakiteko?

.....

- Zein hizkuntza erabiltzen duzu?

.....

	EUSKARAZ	GAZTELANIAZ	BESTE HIZKUNTZA BATEAN
IRRATIA			
TELEBISTA			
EGUNKARIA			
INTERNETA			
BESTE HEDABIDE BAT			

- Idatzi hemen taulako datuak ikusirik ateratzen duzuen ondorioa.

ONDORIOA:





GURE ALTXORRA

Herria ezagutzen

1. Izan ginelako
2. Errementarien zalapartapean
3. Handitzen-handitzen
4. GURE ALTXORRA
5. Izan ginelako gara
6. Ekin eta ekin



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

hh
hik hasi

di- zure balioen marka

www.arrasate.eus